

### **DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA**

Datu pertsonalen tratamenduari buruz indarrean dagoen araudia betez, hau jakinarazten da:

- Zure datu pertsonalak hautaketa prozesua izeneko tratamendu batean sartuko dira.
- Tratamenduaren erakunde arduraduna Irurako Udala da.
- Tratamendu honen helburua da hautaketa prozesuko informazioa kudeatzea eta lan-eskaintza publikoen arloan indarrean dagoen araudia betetzea.
- Datu horiek honako araudiaren arabera tratatzen dira:
  - Enplegu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.
  - 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, Funtzio Publikoa Berritzeko Neurriei buruzkoa.
  - 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
  - 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa.
  - 20/2021 Legea, abenduaren 28koa, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoa.
  - 7/2021 Legea, azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalena, Euskal Autonomia Erkidegoko toki- administrazioei aplikagarri zaizkien guztian.
  - Osagarri gisa, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuak onartutako Estatuko Administrazio Orokorren zerbitzupeko langileak sartzeko eta Estatuko Administrazio Orokorreko funtzionario zibilen lanpostuak hornitzeko eta lanbide-sustapena egiteko Araudi Orokorra.
  - 10/1982 Oinarrizko Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilera Normalizatzeko.
  - 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri- administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena.
  - 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena.
  - 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
  - 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
  - 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerakoa.
  - 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzena.
  - 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.
  - 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Dokumentuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa.
  - 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriei buruzkoa.
  - Toki-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.
  - 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
  - Oinarri arautzaile hauek.
- Datuak tratamenduan deskribatutako helburuetarako behar den denboran gordeko dira, bai eta egon daitezkeen erantzukizunak ebazteko behar den denboran ere.
- Zure datuak ez zaizkie beste arduradun batzuei emango, legez derrigorrezkoa den kasuetan izan ezik.
- Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko eta aurka egiteko eskubideak erabil ditzakezu tratamenduaren arduradunaren aurrean, idazki baten bidez [dbo@irura.eus](mailto:dbo@irura.eus) posta helbidera bidalita edo idazki baten bidez, helbide honetara: San Migel plaza 1, 20271 Irura.

Eskubide horiek interesdunaren titulartasunekoak direnez, bi kasuetan eskatzailearen nortasuna frogatzea eskatuko da.

Halaber, jakinarazten dizugu erreklamazioa aurkez egin dezakezula Datuak Babesteko Euskal Bulegoan (<https://www.avpd.euskadi.eus>), baldin eta zure eskubideak errespetatu ez badira edo zure eskaerari erantzun zuzena eman ez bazaio.